



Xabier Insausti | Axular Lizeoa (Donostia)

1. saria

(<http://www.axular.net>)

BATXILERGOA

“KOSMODISEAK AGERIAN UZTEN DU AHALEGINERAKO DAGOEN PREMIA”

Xabier Insausti da Axular Lizeoko “Axtizarra” taldearen arduraduna. Talde honek, hain zuzen, lehenengo saria irabazi du, Batxilergoa kategorian. Insaustiren aburuz, Kosmodisean parte hartu izana “oso esperientzia positiboa izan da, taldeko lana garatzeko tresna egokia baita. Proiektua behar bezala betetzeko, antolamendua, kudeaketa eta konpromisoa landu behar izan ditugu.”

- Zure ustez, ekimen honetatik zer iruditu zaie interesgarriena ikasleei?
- Kanpoko esperientzietan parte hartzea eta beste taldeekin harremanetan egotea oso interesgarria iruditu zaie. Gainera, proiektuaren etapa eta faseei esker, hainbat arlotan lan egiteko aukera izan dute; eta hori erakargarria da eurentzat. Faseak, foroak, iritziak, ebaluazioak, audio eta bideo grabazioak...

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?

- *Ezin hobeak. Berehala ohartu dira lanarekin baino ez direla lortzen emaitza onak. Azken batean, ahaleginerako dagoen premia agerian geratu da.*

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?

- *Lana taldean egitea, beste taldeekin harremanetan jartzea, antolatzean egon ohi diren arazoei aurre egitea eta lana banatzeko eta estrategia erabakitzeke dagoen premiaz ohartzea.*

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?

- *Proiektu barnean zeuden lanen askotarikotasuna. Alderdi ugari landu behar dira, eta hori egokia da antolamendua eta estrategia garatzeko. Hobetu litekeen alderdiari dagokionean, berriz, ebaluazio sistema aipatuko nuke.*

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?

- *Aztertu egin beharko dugu. Parte hartuz gero, ondo aztertu beharko dugu zer mailatakoek jardun beharko duten. Aurten, batxilergoko bigarren mailakoek hartu dute parte, eta uste dugu ez dugula aukeraketa ona egin.*

Hurrengoan ere parte hartzea gustatuko litzaiguke, baina ikastolan bertan ditugun proiektuen kopurua eta ezaugarriak aztertu beharko ditugu lehenik eta behin, eta hala, mahai gainean jar dezakegun energiari erreparatu beharko diogu.

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...

- *Ebaluazio sistema egokia iruditzen zaigu, baina antolatzailleek gainbegiratze lan kualifikatua egin beharko luketela uste dugu. Hau da, oraingo ebaluazio sistemaren barnean beste atal bat ezarri beharko litzateke: ohiko epaimahai orokorra. Epaimahai horrek, beraz, lan guztiak aztertu, eta zenbait puntu eman beharko lituzke; era horretan, zoria eta subjektibotasuna pixka bat orekatuko lirateke.*